

IKASTOLAK



estatus politikoa
Orain
2008
Apirila

Informatzen

Atzo, apirilaren 16a Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastoletako Lan hitzarmeneko mahai eratu zen.

Une honetan ez dugu egoki ikusten lan hitzarmenaren mahaira ekartzea plataforma egituratu bat, aurreko urteetan egin dugun bezala.

Hori da, gure ustez, neurri handi batean, negoziazio kolektiboaren bidez, bizi dugun ezintasunaren isla, ikastoletan, gaur egun langileek ditugun lan baldintzen ardatz diren ataletan (ordainsariak, lanaldia, ratioa...) hobekuntzak adosteko orduan.

Era berean, esan beharra dago, mahai negoziatzaile honetatik kanpo dagoen botere politikoa ordezkatzeko duen funtsezko hirugarren eragile bat, Jaurlaritza, ikastoletan jarduerak ordenatu eta finantzatu egiten dituen da, 1992ko urtean Eskola Itunean finkaturiko parametroen arabera.

LAB sindikatuak eratorriko hezkuntza markoa behin eta berriz agortuta dagoela salatu du.

Lehenik eta behin, aipaturiko Itun horrek irakasleak ez diren langileei buruzko inolako konpromisoa jasotzen ez duelako eta bigarrenik, Euskal Eskola Publikoaren legearen onarpenarekin Erkidego Autonomoko ikastetxeen arteko gero eta lubaki sakonago bat zabaldu delako. Batez ere, titularitatearen arabera, hezkuntza baliabide ezberdinak lortu eta erabiltzeko posibilitatea izateko orduan.

Gogoratu nahi dugu lege horrek ez dituela bete historikoki hezkuntzako eragile batzuek zituzten itzaropenak. Besteak beste, parametro herritarrean, parte hartzailean eta titulartasun konpartituan oinarrituriko Euskal Eskola Publiko Berri baten sorrerako.

LAB sindikatuak pasatako garai horietatik ikasi duguna presente izanik, Ikastoletako negoziazio kolektiboa beste testuinguru batean instalatu nahi du, langile modura Hezkuntza Sistemarekiko betebeharrak berdinei aurre egiteko eskatzen digutelako, Hezkuntza bezalako Zerbitzu Publikoa benetan kalitatekoa izateko xedeaz.

Guretzat, ezinbestekoa da Finantziario Akordio berri bat egitea. Batetik, negoziazio kolektiboan gaur egun aurkitzen ezin gaindituzko mugak ezabatzen hasteko eta bestetik LAB sindikatuak Hezkuntza Lege Propioa egiteko elementu katalizatzaile gisa erabili nahi duelako.

Momentu honetan, presio mobilizazioak eta bide berri batzuk egiteko garaia dela uste dugu, bai ikastoletan eta baita ere ekimen sozialeko ikastetxetan.

ADI!!!! eta MUGI!!!

Gaur, apirilak 17an prentsaurreko eman dugu LAB eta ELA sindikatuak, bertan mobilizazioen berri eman dugularik.

LAB
Irakaskuntza